

## Zer besta ederra

Zer besta ederra  
Eguberrikoa  
Zer besta ederra  
Gaiten bozkaria !

Garbiturik bezperan  
Haur gazten zapatak  
Ximinia ondoan  
Emanak lerroan  
Gaua labur du haurrak  
Aments ederretan  
Gaua labur du haurrak  
Aments ederretan

Izaietik dilindan  
Panpina pollita  
Hari hurbil estekan  
Hanxet da pilota  
Gutarik bakotxaren  
Present bat ukanen  
Gutarik bakotxaren  
Present bat ukanen

## OLENTZERO! OLENTZERO!

Olentzero jin zauku menditik herrira,  
Zahar gazte guzien alegeratzera.  
Utziz mendian elur, euri ta haizeak  
Aise nahiago ditu supazter pindarrak!

### Olentzero ! Olentzero !

Angeluko herria baitzaio pollita,  
Gaur hemen afaltzeko gelditzen omen da.  
Esne broskatua du harek bere friko,  
Eta gaztain erreak ditu maite asko!

Olentzerok irri bat beti haurrendako,  
Bere bizar haunditik baitu aterako!  
Eta bere zarpatik du berdin botako  
Prestu diren haurrentzat oñoñ goxo asko!  
Manex Pagola

## OLENTZERO BEGI GORRI

Olentzero begi gorri  
Nun harrapatu duk arrain hori?  
Ziburu ondoko harkaitzetan,  
Bart arratseko hamaiketetan!

### ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan, zakua lepoan  
Ibili beharko dugu aurtengo neguan, riau!

**Riau, riau, riau, riakataplau!!**  
**Hau duk umorea!**  
**Utzi alde batera euskaldun jendea! (berriz)**

Elurra ibarrean, makila eskuan  
Mendira beharko dugu basurdetara joan, riau!

*Soinu eta kantuak egungo gauean*  
*Olentzero dabil gaur gure artean, riau!*  
*Riau, riau, riau, riakataplau!!*  
*Euskaldun giroa!*  
*Angeluko eskolak kantuz etorriak!*

### OLENTZERO

Olentzero pentsatu Eguberriari.  
Guzieri eskaini nasaiki opari.  
Ez badakizu, zuzen, nori zer ekarri,  
begiratu zuk ere, oi telebistari!

**Eguberri, Eguberri, dena kantu, dena irri,**  
**Herriz herri izan gaiten, bakearen mezulari!**

Haur maiteak, entzun dut nik zuen galdea,  
baina amestu hura oraikoan badea?  
Miserian da, egun, nonahi jendea,  
duguna zati, dela neure ordrea!

Oparien heltzea nik ez dut hastio,  
zakuetan badut bake eta amodio.  
Zu, ez kezkatu, haurra, ez baitu balio,  
ni jin artino erein zazu bozkario!

Hitzak: Ernest Alkhat  
Airea: B. Eyherabide, M. Ducau

### OLENTZERO

Olentzero joan zaigu mendira lanera,  
Aizkora zorroztuta ikatz egitera.

**Horra, horra! Gure Olentzero,**  
**pipa hortzetan duela, eserita dago.**  
**Kapoiak ere baditu, arraultzatxoekin,**  
**bihar askaritzeko botil arnoekin. (bi aldiz)**

### HATOR HATOR

Hator, hator mutil etxera, gaztainak zimelak jatera.  
Gabon gaua ospatzeko aitaren ta amaren ondoan.  
Ikusiko duk aita parrezka, ama're poz atseginenez.

Eragiok mutil aurreko danbolinari...  
Gaztainak erre artean... gaztainak erre artean...  
Txipli, txapla pun!  
Gabon gaua pozik igaro daigun!! (bi aldiz)

## **KAS KAS ATARIAN**

Kas kas atarian nor dabil etxean  
Ikusi makusi nor naizen ikasi

Albarkak beltzak  
Galtzak urdinak

Ez ez ez dakit ezer ez ez ez  
Ez ez ez konda ezadazu.

Albarkak beltzak  
Galtzak urdinak  
Xamarra beltza  
Txapela beltza

Albarkak beltzak  
Galtzak urdinak  
Xamarra beltza  
Txapela beltza  
Pipa hortzetan  
Botoila bertan

Bai, bai, bai lehen orain eta gero (berriz)  
Zu zira gure Olentzero

## **GURE AITONA ZAHARRA**

Gure aitona zaharra  
Pipa ahoan duela  
Aizkora eta xahakua  
Olentzero da.

Zakua ikatzez betea  
Menditik jautsiko da.  
Gau luze hau argituko da.  
Eguberri da.

**Argia, egiazko oparia**  
**Argia, Eguberri da (bi aldiz)**

Gaur egonen naiz beha,  
Ezin dut hartu loa.  
Olentzero etorriko da  
Ene ikustera.

Oparien banatzeko  
Ez du nehor ahantziko.  
Elkartasun eta bakea,  
Eguberri da.

**Argia, egiazko oparia**  
**Argia, Eguberri da (hiru aldiz)**

## **DIN DAN DON!!**

**Din dan don, din dan don,**  
**Eguberri on!**  
**Zorion, zorion, gabonak din dan don!**  
**Din dan don, din dan don,**  
**Eguberri on!**  
**Zorion, zorion, gabonak gabon!**

Ikastolako lagunak gira,  
hukat etorriak zuek agurtzera!  
Olentzero da gure lekuko,  
bake eta zorion zuei eskeintzera!